

MEMORIA HISTORIKOAREN EUSKAL INTERPRETAZIO ZENTROA



IBILBIDEA INTXORTEN MAGALEAN

Bigarren hezkuntzako zentroentzako
gida



ELGETAKO UDALA
(GIPUZKOA)

MEMORIA HISTORIKOAREN EUSKAL INTERPRETazio ZENTROA IBILALDIA INTXORTEN MAGALEAN

Memoria historikoaren euskal interpretazio zentroa Elgetan dago kokatuta, eta bi osagai nagusi ditu. Lehenak, Intxorten magaletik egiten den ibilbideak, Elgetan kokatutako frontearen berreskurapena du oinarri, hainbat lubaki eta babesleku ikusgai dagoelarik. Bigarrena, erakusketa iraunkor bat da, ikus-entzunezko materialez eta garaiko tresneriaz osatua eta maketa batek lagundua, frontearen kokapena ulertu ahal izateko.


Bi elementu hauek uztartuz, ibilbide hau proposatu nahi genizueke gaztetxoentzat:



Miravalles baserria, Asentziorako bidean

Bisitaldiari hasiera Elgetan emango diogu, Espaloia kafe antzokian, bertan gudaren eta fronteen kokapen orokorra egingo dugularik. Asentzio aldera igotzen joango garen heinean, frontearen zabalera osoa ikusi ahal izango dugu, bai eta inguruko herriak lekutu ere. Gainera, natur giroan, ikuspegi ezin hobeaz gozatzeko aukera izango dute gazteek. Bestetik, lanbide eta usadio zaharren inguruan ikasteko aukera ere izango dute: karobiak, bolatokiak...

Asentziora iritsitakoan, kokaleku honek 1936ko urriko eta 1937ko apirileko borrokaldietan izan zuen garrantziaz arituko gara, eta fronte biak elkarrengandik zein hurbil zeuden ikusiko dugu. Bi aldean kokaleku estrategikoak begi-bistan izango ditugu, beraz.



Asentzio kolpisten aldetik



Intxortako Atea, Intxorten magalean

Hemendik
Intxorta aldera jota,
Intxortako Atea
monumentuan
egingo dugu
geldialdia, beronen
zergatia azaldu
ondoren
berreskuratu diren
lubakiak bisitatzeko.



Lubakietan barrena

Lubaki hauetan, aukera egongo da barrura sartu eta norbere esperientzia bizitzeko. Hauekin batera, babeslekuak eta belgikarren kokaleku ezaguna ikusiko ditugu.



Lubakiak elurtuta



Babeslekua



“La Belga” posizioa

Ibilbideari amaiera emateko, Xalbador ermitara jaitsi eta frontearen erorketaren eta honen ondorioen gainean hitz egingo dugu, Ansoategi Bazterrekoa baserrian geldialdia eginez, frontea erori ondoren Elgetan gertatutakoak aipatzeko.



Xalbador ermita



Oroitarria



Ansoategi Bazterrekoa, Ansoategi eta Ikatzarre baserriak



Posizioen maketa

Ibilbidea amaituta, erakusketa iraunkorrean, eta ikusentzunezko materialen laguntzaz, gaztetxoek garai hura bizi izan zutenen testigantzak jaso ahal izango dituzte eta ibilbidean zehar aipatutakoak maketa baten kokatu. Honekin batera, arma, arropa... eta beste zenbait tresneria egongo da ikusgai, gaztetxoek esperientzia ahalik eta integralena izan dadin.

Garrantzia berezia ematen diogu gaztetxoek ibilbide honetan parte aktiboki hartzeari, esperientzia positibo baten bitartez beraien hausnarketa jarrera bultzatzea nahi baitugu, norbere herriko historiarekiko interesa sortzearekin eta 1936tik 1937ra bitarte izandako gudaren berri jasotzearekin batera.

Pedagogiari dagokionez, klase magistraletatik urrun aurkitzen da gurea. Gaztetxoek gogoeta jarrera bilatuko dugu behin eta berriz: galderak egin eta erantzunak pentsa ditzaten eskatuko zaie, honela informazioa errazago barneratuko dute eta. Gainera, beraiek bizi izango duten esperientzia izango denez eskainiko dieguna, beraien burua gertakarien lekuan bertan kokatuko dutenez, jasotakoa barneratzea erraztuko da.



Gazteei azalpenak ematen

Beharrezko materiala: ibilaldia mendian zehar egingo dugunez, mendiko oinetakoak ekartzea gomendagarria da, beti ere urte sasoiaren eta eguraldiaren arabera.

Erreserbak egiteko, harremanetan jarri 943718911 edo 943796463 telefonoen bidez, edo nahiago izanez gero turismo@debagoiena.net helbidera idatzita. Prezioari dagokionez, ikastetxeentzako eskaintza berezia egiten dugu, pertsonako 3€ soilik!

Informazio gehiagorako, jo hurrengo helbideetara:

<http://www.elgetamemoria.eus>

http://www.elgeta.eus/ezagutu/elgeta-eta-gerra-zibila?language_sync=1

<http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/museo.php?id=eu&Nmuseo=1320313869>